



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEAk hobetzeko tarte zabala ikusten du Bilboko Udalak Metropoli Fundazioarekin egindako kontratazio publikoen kudeaketan.

Bilboko Udalak eta udal entitate batzuek kontratazio-prozesu ezegokiak gauzatu zituzten. Horiek lehia askea eragotzi zuten 1.475.000€-ko esleipenean, 2010etik 2014ra bitarteko epean.

Bilbo, 2017ko ekainaren 2a

Lehiaren Euskal Agintaritzak txosten bat egin du Bilboko Udalak –eta beste udal entitate batzuek– eta Metropoli Fundazioak sinatutako negozio juridiko batzuei buruz. LEAk hobetzeko tarte zabala ikusten du 2010etik 2014ra bitarteko epean egindako 1.475.000€-ko esleipenean. Bertan lehia askea deuseztatu den kontratu-multzo batean, interes orokorraren kaltean.

Txostenak azpimarratzen du kontratazioari buruzko araudiak tresna-sorta zabala eskaintzen diela administrazioei euren beharrak efizientziaz asetzeko, operatzaileen arteko aukera-berdintasunari kalterik egin gabe.

Aztertutako negozioetan kontra-prestazio bat dagoenez prezio baten truke, kontratutzat hartu behar dira horiek eta ez hitzarmentzat edo dohaintzat, Udalak egin duen bezala.

Negozio horien edukiak ez du justifikatzen Metropoli Fundazioa izatea Administrazioak zehaztutako helburuak betetzeko gai den “entitate bakarra”.

Nahiz eta negozioak fundazio batekin sinatu (irabazi-asmorik gabea, beraz), entitate horren kontuak aztertuta ondorioztatzen da bere jarduera ia osoak merkataritzako izaera duela.

Publizitate- eta lehia-printzipioak funtsezkoak dira interes orokorra bermatzeko. Horregatik, administrazioek estuki saihestu behar dute beste kontratazio-mota batzuk erabiltzea, printzipio horien kaltean.

Interes orokorraren berme egokiak kontratazio-prozesu bat hastea ekarriko luke. Han, aukera-berdintasuna bermatuz gero, enpresa batzuek parte hartu ahal izango zuten. Hori gertatuz gero, kalitatearen eta prezioen hobekuntzak egongo ziren eta administrazioek diru publiko gehiago erabili ahal izango zuten herritarrentzako bestelako zerbitzuetan.



Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.

Txostena:

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/adjuntos/92_INFORME_METROPOLI_web_es.pdf